



ZARAUZKO UDALA

## ZARAUZKO UDALAREN DEKLARAZIOA

- ▶ Baserriaren eta baserritarraren balioa onartzen dugu eta gure herriaren oinarritzko elementua dela aitortu.

Zergatik?

- Baserriak ematen dizkigulako elikagai osasuntsuak.
  - Baserria delako landa lurraren, naturaren eta bioaniztasunaren euskarria.
  - Baserriak gordetzen duelako kultura eta bizimolde jakin bat.
- ▶ Konpromisoa hartzen dugu baserria ezagutzeko eta baserritarrekin elkarlanean aritzeko, beren eginkizunetan laguntzeko.
  - ▶ Herritarrei eskatzen diegu baserria ezagutu dezatela, herriaren elementu garrantzitsua dela ohartzeko eta errespetatu eta gozatzeko. Baita ere kontsumitu ditzatela bertako produktuak.
  - ▶ Baserritarrari eskatzen diogu jarrai dezala bere eginkizunetan, oreka gordez nekazaritzarekin, naturarekin eta kultur ondarearekin.